

- **Funtsezko jarduerak**

Aplikazioa sortzea eta ondo mantentzea oso garrantzitsua da. Horretarako, arduradun talde bat egongo da aplikazioa prestatzen eta eguneratzen. Talde horrek ziurtatuko du aplikazioa erraza eta segurua dela erabiltzeko. Autobusen zerbitzua ondo antolatzea ere beharrezkoa da. Horretarako, bidai bakoitzeko arduradun bat egongo da, ordutegiak eta ibilbideak planifikatzeko eta erabiltzaileen beharrei erantzuteko. Gainera, erabiltzaileen iritzia jasoko dugu zerbitzua hobetzen joateko. Autobusen egoeraren zaintza eta segurtasun arauak betetzea autobus-konpainiaren lana izango da. Guk erabiltzaileen iritzia bilduko dugu, eta arazoak badaude, autobus-konpainiari jakinaraziko dizkiogu. Azkenik, erabiltzaileekin komunikazio argia izatea oso garrantzitsua da. Aplikazioak informazioa erraz emango du, eta erabiltzaileek galderak egin edo laguntza eskatu ahal izango dute nahi dutenean.